



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2022KO AZAROAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko azaroaren 30ean arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lacastaren lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Julen Beunza eta Ricardo Arangoa.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Urriaren 25eko ohiko batzarreko akta da deialdiarekin batera, bildutakoek irakurri ondoren aho batez erabakia hartzen dute.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

- 2022/89 alkate ebazpena onartuz Elena Gaskue Jaunarena, egindako lanaldi luzapen eskaera, %87.50tik %100eko lanaldira.

- 2022/90 alkate ebazpena onartzea Josune Ripalda Zubidetari zaharberritzeko dirulaguntza aterpea egin eta siloak botatzeko obraren aurrekontua, 15.627,09 eurokoa

denez laguntza 312.54 euroa da.

- 2022/91 alkate ebazpena Aizarotzko Igoabide 4 eraikineako Jabeen elkargoak aurkeztutako aitorten ardurtsua onartuz aipatutako eraikineko teilatuko hodiak garbitzeko eta saneatzeko, obra honen aurrekontua 585 eurokoa da.

- 2022/92 alkate ebazpena Aizarotzko Herriko Plaza 2 eta 3 eraikinetako Jabeen elkargoak aurkeztutako aitorten ardurtsua onartuz aipatutako eraikinetako teilatuko hodiak garbitzeko eta saneatzeko, obraren aurrekontua 1015 eurokoa da.

- 2022/93 alkate ebazpena onartuz 2021eko abenduan gertatutako uholdeek eragindako kalteak konpontzeko obra, B31737849 IFK zenbakidun Construcciones Tellegui enpresari esleitzea, Luis Olza Donezar Mendi Ingenieriak egindako proiektuaren arabera. 20.043,22 eurotan (BEZ kanpo).

- 2022/94 alkate ebazpena baimena emanaz Amaia Berasain Berasaini, Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko, asteartetan 16:30etatik 18:00etara eta ostegunetan 16:30etatik 17:45etara, Jaunsaratsko haurrak jolasteko.

- 2022/95 alkate ebazpena baimena emanaz Pili Miqueo Miqueori Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko azaroaren 13an 18:30etatik 20:30etara, Jam sesio bat egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

### **3.- 2022ko aurrekontu aldaketa. Hasierako onespena.**

Ogasun batzordean aztertu dira aurrekontuaren bi aldaketak eta ontzat eman ondoren batzarrean onartuak izateko. Honako hauek dira aldaketak:

2022/1 aurrekontu aldaketa: Eskolako langileen ordainsarien poltsaren soberakina ez da iritsiko urte bukaera arte sartu beharreko gastuetarako, kontutan hartuta urteko soldata igoera sartu behar dela eta hau azaroko nominan sartuko dela indarrean.

Hortaz proposamena da 0-3 eskolako hezitzaileen ordainsarien partidaren aurreikuspena handitzea 4500 euroekin. Aurrekontu aldaketa hau, aurrekontuaren aurreikuspen orokorrak aldatu gabe, kreditu transferentzia bidez egitea proposatzen da 1995/270 Foru Dekretuaren 41. Artikuluaren arabera.

Kreditu transferentzia egiteko erabiliko da 1.5.6 poltsa bertan nahiko soberakin dagoelako, poltsa horretan dago industrial guneko urbanizaziorako gastuen partida 254000 euroko aurreikuspenarekin.

2022/2 aurrekontu aldaketa. Aurrekontu aldaketa hau osasun programen partidak eskatzen du, bertan sartzen dira bai osasun programan sartutako gastuak bai aktibatu

programarenak eta hortaz kontutan hartuta hilabeteko programa horren kostea 700 euro ingurukoa dela, gainera ere zahartze aktiborako programaren gastua hots, adinduen gimnasia elementuak ere sartu beharra dagoela (6800 euro inguru), gehi 715 euro ume eta nerabeen osasun programarenak, guztira 10.500 euroko ekarpena beharko luke abendua arte partida horren aurreikuspenak ez gainditzeko.

Aurreko aurrekontu aldaketa bezala aurrekontu orokorraren aurreikuspena ukitu gabe, kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa egitea proposatzen da lehen aipatutako partida erabiliz, bertan soberakina baitago.

Aurrekontu aldaketak aurrekontua onartzeko tramitazio bera izaten dute eta hau 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 271. Artikuluan zehazten da, hortaz aipatutako araudia jarraituz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

**-Hasiara batez onartzea 2022/1 eta 2022/2 aurrekontu aldaketak eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 271. Artikuluan zehazten dena jarraituz erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindu 15 eguneko epean jende aurrean egon dadin.**

#### **4.- NUFK eta Ogasunarekin sinatzeko hitzarmenaren onespena.**

Alkateak azaltzen du ponentzia berritzeko aurrekontua Trakasak aurkeztutakoa onartu zela, baina aukera eman duela enpresak ogasuna eta NFK-en arten sinatutako lankidetzaren hitzarmena baten bidez baliatuz BEZ-a ez ordaintzeko.

Irakurtzen dira hitzarmenaren ildo nagusienak. Lankidetzaren honen barruan sartu ahal dira katastroko mantenimendua egitea, ponentzia berritzea edo zergen ikuskapenak. Kontutan hartuta katastroko mantenimendua Estudio 5 enpresak egiten duela eta udalak kontent dagoela egiten duen lanarekin beste lanak egiteko zehaztuko da hitzarmena. Zehaztu behar dira ere urtean lan bakoitzarentzat eskatzen diren ordu kopurua baina urte bukaeran likidazio egin eta bakarrik kobratzen dira errealitateak egindako lan orduak.

Hitzarmen hau onartu eta hurrengo hiruhilabetean sinatzen da ogasun departamentuarekin.

Hau kontutan hartuta bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea Ogasuna eta NFK-en arteko lankidetzaren hitzarmena eta hala jakinaraztea Ogasun departamentuari, dagokion tramitazioarekin jarraitzeko, beraien onartu eta sinatu dezaten. Hitzarmen hau euskaraz sinatzeko eskaera egingo da**

#### **5.- 2022ko plantilla organikoa. Hasierako onespina.**

Aurrekontuarekin batera onartu behar da toki entitateek urteko plantilla organikoa. Bertan agertzen dira urteko urtarrilaren 1eko datarekin, udalean dauden lanpostuak eta langileen zerrenda.. tramitazioa 1990/6 Foru Legearen 235. Artikuluak zehazten duena da “ *Toki entitate bakoitzak bere plantilla organikoan adierazi beharko ditu plazen eta lanpostuen ezaugarriak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuz kontuan hartzen direnak barne. Langile horiek hartzeko prozedurak ezaugarri horietara egokituko dira.*

*Toki entitateetako plantilla organikoak urtero onetsi beharko dira, aurrekontua onestearekin batera. Onesteko eta hura indarra dagoen bitartean aldatzeko, aurrekontuetarako ezarritako tramiteak bete beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere barne.*

*Elkarte-izaerako entitate bat edo hitzarmen bat egoteagatik, toki entitate batean baino gehiagotan aritzen diren langileak badaude, langile horiek plantilla organiko bakar batean agertuko dira, organikoki menpean dituen entitaterenean hain zuzen, eta horren aipamena egin beharko da lanean ari diren gainerako entitateetako plantilla organikoetan.*

*Toki entitateek plantillaren kopia bat igorriko diote Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, behin betiko onetsi eta hilabete bateko epean. Horrekin batera, lanpostuen zerrenda ere igorriko da, bakoitzean ari diren langileak aipatuz. “*

Alkateak irakurtzen du 2022 urteko plantilla organikoa eta bertan agertzen diren akatsak zuzentzen dira, haur eskolako garbitzaile lanpostuaren jardunaldia %100etik 73-etara pasatuz eta haur eskolako hezitzaileen mailako lanpostu gehigarria jarriz.

**Hau kontutan hartuta bildutakoek aho batez onartzen dute 2022. Urteko plantilla organikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindu 15 eguneko epean jende aurrean egon dadin.**

#### **6.- Mozioak.**

Alkateak bi mozio daudela aipatzen du, lehena Bizitza elkarteak bidalitakoa eta ondoren irakurri eta transkribatzen dena:

“Ukabezina da jendea gero eta kezkatuago dagoela Covid-19 inokulazioek eragindako ondorio kaltegarriekin, batzuek “txerto” izenez ere ezagutuak.

Aurtengo urtarrilean, Bizitzak Udaleko Alkatetzari jakinarazi zien Covid inokulazioa hildakoak eta ondorio kaltegarri ugari eragiten ari zela:

“Bestetik medikamentu genikoa ez da eraginkorra: hasieran %95ean immunizatzen zuela esan zuten, gero %60ean, gero %30ean, orain 3. dosia jarri behar dela eraginkortasuna galdu duelako, gero 4.ena... Horrezaz gain, 2022ko urtarrilaren 1ean Eudravigilance erakundeak (EMA Europako Sendagaien Agentziaren mendekoa) argitaratutako azken datuek txertaketan ondorio kaltegarrien dimentsioak erakusten dituzte, horietako asko aldeztu aurretik osasuntsu zeuden pertsonenak: 36. 257 heriotza eta 1.540.852 lesio larri. Hori guztia, kasurik onenean, kontrako erreakzioen, hau da, txertoekin zerikusia dutenean, % 10a baino gutxiago jakinarazten direnean”.

Ondorioz, Alkatetzak eta udalbatzako gainerako kideek 2022ko urtarrilean zuten lehen aipatutako informazioaren berri. Gaurko datarekin Alkatetzari eta Udalbatzako gainerako kideei jakinarazi zaie duela aste batzuetatik egiaztatzen ari direla Covid-19aren inokulazioekin lotutako heriotza gehiegi. Informazio batzuen arabera, covid inokulazioek 2 eragiten dituzten kontrako efektuak eta hilkortasuna desberdinak dira markaren eta lotearen arabera (horregatik debekatu zituzten, adibidez, Astrazeneca eta Janssen). Gure ustez, alderdi hori zorrotz aztertzeke eskatu behar da.

Izan ere, horrek azalduko luke hilkortasunaren gehikuntza lurraldeen arabera nahiko desberdina izatea. INEren arabera, biztanleri kopurua ikusita, Nafarroan EAEn baino % 45 handiagoa izan da (uztailera arte 506 hildako gehiago Nafarroan eta 1.147 EAEn). Baina EAE barruan ere alde handiak daude, Eustaten arabera Gipuzkoan Bizkaia-ren bikoitza izan delako (% 10,3 eta % 5,1, hurrenez hurren), eta Araban %8,9rekin geratu da. Hilkortasunaren gehikuntza hori Europa osoan ikusten ari da, eta handiagoa da covidaren inokulazio handiagoak dituzten herrialdeetan. Gaur egun, jarduera judiziala egiaztatzen ari da, bere ebazpen judizialen bidez, gobernuek modu desegokian jokatu dutela, eta ebazpen judicial banatan, besteak beste, Euskal Autonomía Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN)

berriki emandako ebazpenean, EBko covidziurtagiriaren eskakizuna zabaltzen zuen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren deuseztasuna deklaritzen duenean (Nafarroan antzekoa aplikatu zen), adierazten du neurri hori oinarrizko eskubideei eragiten ez dien arren, neurri hori ez dela justifikatzen. Auzitegiak, ebazpen judizial honetan, gogorarazten du arauak aukera eman behar duela "gainerako oinarrizko eskubideekin eta Konstituzioak babestutako ondasunekin modu baketsuan existitzeko, kasu honetan bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubidearen presentzia indartsua baita, eta herritarren osasunaren defentsa eta babeserako eskubidea", eta uste dugu oinarrizko printzipio horiek askoz ere gehiago hartu behar direla kontuan.

Udalbatzari gogorarazi nahi diogu dekretu hau herritar guztien eta, bereziki, gazteekin hertsapen estrategia indartzeko erabili zela, Covid inokulazio geniko esperimentalak jartzera bultzatzeko. Era berean, nabarmendu nahi dugu

Udalak elkarlanean aritu direla Dekretu Baliogabe hau justifikatzeko, eta "beharrezko laguntzaile" gisa jardun dutela inokulatzera bultzatuko zuen gizarte giroa sortzeko. Kontuan hartu gabe, gainera, lehen genekizkien eta orain publikoki gehiago azaleratzen ari diren inokulazio geniko horrek osasunerako omen zituen arriskuak.

Ondorioz, aitortu behar da Covid-19 "txerto" esperimental genikoa inokulatzeko erabakiak ez direla ez libreak ez borondatezkoak izan. Bai ordea, zuzenduak, bereziki gazteen kolektiboaren artean

Udaletako arduradunek barkamena eskatu behar diete publikoki gure herrietako gazteei, ez baitituzte babestu eta defendatu erakunde publikoek euren kontra burutu duten

hertsapenetik, bultzatu baizik. Baita gainerako biztanleei ere barkamena ere eskatu (txikiei, adinekoei, etab.) haien aurka egin duten hertsapen kanpainagatik, apartheid pasaporte lotsagarriarekin

Udalaren portaeraren aurrean, Bizitzak bere zerbitzu juridikoei erantzukizun juridikoak ebaluatzeko eskatu die biztanleriak duen babesgabetasun egoeragatik.

Udalbatzari eskatzea

Erakunde publikoetan erantzukizuna duten pertsonen gogorarazten diegu herritarrak

babesteko betebeharra eta erantzukizuna dutela, eta, horregatik, alkatetzari eta

gubernutaldeari eskatzen diegu mozio hau aurkez diezaiotela udalbatzari, hemen

aurkeztutako justifikazioari buruz, honako

ESKABIDE honekin:

1.- Udal honek Udaltzari onar dezala Nafarroako Gobernuko arduradunei auditoria bat egiteko eskatzea, azken hilabeteetan Nafarroan izandako gehiegizko heriotzen arrazoiak ezagutzeko, eta Euskadiko Biologoek Elkargoko Ex dekanok, Jon Ander Etxebarriak, egindako txostenean egiaztatuta eta Pedro Prieto zientzialariak eta Nazioarteko Krisi

Medikoaren adierazpenean aipatutako ondorio kaltegarrien datu baseetan berretsita daudenak (aipatutako hiru agiriak mozio honi erantsi zaizkio).

2.- Udal honek, Covid-ek eragindako gehiegizko heriotzak direla-eta, adin tarte desberdinetako txertaketaren ehunekoekin lotuta egon daitezkeenak atxikitako txostenetan ikusten den bezala, Eusko Nafarroako arduradunei eskatzea berehala gelditzeko Osasunbideko arduradunek gaur egun sustatzen ari diren Covid-19 txertoaren 4. Inokulazioa..

3.- Udal honek udalerrian azken 10 urteetan hil direnen kopuruak Bizitzari bidaltzea.

4. Badaezpadako neurri gisa, udalerriko egoitzetan adinekoei 4. inokulazioa gelditzea eskatzen da, baita udalerriko osasun- zentroetan 6 urteko umeei inokulazioaren 3. dosia injektatzen ere ez, hain gai larria argitu arte.

5. Udalerriko osasun agintariei informazioa eskatzea injektatu diren inokulazioen osagaien eta bi urte hauetan erabilitako lote zenbakiei buruz

Bildutakoek aho batez adosten dute ez onartzea irakurri eta transkribatutako mozioa eta hala adieraztea Bizitza Elkarteari.

“Berriki ezagutu ditugu udalerriko euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udalerriko euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udalerriko Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolanhiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udalerrri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen dago, kuantitatiboki, euskararen errealitatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udalerrri euskaldunek. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberitzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

Atzo amaitu zen Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikoari eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerrri euskaldunei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerrri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerrri bizirik eusteko. Baina baita udalerrri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturaren edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten, Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulerrarazteko mugarria izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerrri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorak diren udalerrri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabalitzen segi dezan.

Aho batez onartzen da mozioa eta UEMari helaraztea adostu ere.

## **7- Batzordeen informazioa.**

### **Garapen Batzordea. Riki Arangoak ematen du informazioa.**

Aranon bilera egin zen Mendialdeko Behatokia nola kudeatu eztabaidatzeko. Hautatutako iharduera bakoitzeko mahaia sortu da (industria, elikadura, merkataritza, turismoa ....)



Nafar Gobernutik laguntza jaso da lanketa hau egiteko.

### **8.- Informazio orokorra.**

Euskarabideko laguntza jaso da 5800 eurokoa izango da 2022. Ekitaldirako. Bertan sartu da bai UEMAREN kuota, bai ostalariekin egin zen hitzarmena bai udalak antolatutako hainbat antzerki eta ipuin kontalari.

### **9. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:15 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.